



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 13a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sar dezan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunari buruzko araudi indarduna bete beharra lan, gizarte eta ingurumen betebeharrei buruzko klausulan, kontratazioari dagokionez (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Alokairuko Etxebizitzaren Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetzta-unitateei zuzendua. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” ekimena sustatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako bekak emateko. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, osasun-garraioaren arloan Nafarroako DYA elkarte ematen ari zen zenbait zerbitzu bertan behe- ra utzi izanari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorrek Canal de Navarra S.A.rekin hartutako zorra birfinantzatzeko eskariari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanzen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (9. or.).
- Galdera, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa, Maior- ga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).

- Galdera, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (11. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (11. or.).
- Galdera, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (12. or.).
- Galdera, Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, hondamendi naturalen eta baliabideak koordinatzearen arloko mugaz gaindiko lankidetzaren zenbait alderdiri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, FEDER eta FSE funtsak 2014-2020 aldian exekutatzeari eta kofinantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, etxebizitza babestua erregelamenduz ezarritako salbuespenen bidez eskuratu duten onuradunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitaziora atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, «*after-care*» direlako bisitei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuako Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena, negoziatzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako premiazko jabeldura hau aurkeztzen dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, hitzarmen ekonomikoaren negoziazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Izan ere, legez ezarritako egutegiak behartzen du 1990eko hitzarmena 2014an zehar berriz ere negoziatzera, eta horren ondorioz erreforma fiskalak egin beharko dira, zeinen erronka izanen baita Nafarroaren zerga-sistema eta Europako fiskalitatea harmonizatzea, bai eta Ecofin-en edo horren ordeztan sortzen den erakundean nahitaezko partaidetza politikoa izatera ere, non eta ez den luzatzeko aukera baliatzen. Zehatz bedi negoziatio hori zertan den, bai eta negoziatioa euskal kontzertuaren negoziatioarekin sinergiak bilatu gabe egiten ari den edo egiteko asmoa duen Nafarroak.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sar dezan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunari buruzko araudi indarduna bete beharra lan, gizarte eta ingurumen betebeharrei buruzko klausulan, kontratazioari dagokionez.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sar dezan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunari buruzko araudi indarduna bete beharra lan, gizarte eta ingurumen betebeharrei buruzko klausulan, kontratazioari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren printzipioa egiazkoa izan dadin eta sexuaren araberako diskriminazioa desager dadin, beharrezkoa da, erakunde publikoen konpromisoaz gain, helburu horiek administrazioen eta partikularren arteko harremanen esparruan sustatzea ere.

Hortaz, kontratazio publikoaren arloan beharrezkoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasunari buruzko klausula sozialak jasotzea.

Estatuan, Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak aukera ematen die administrazio publiko guztiei (baita autonomikoei ere) beren kontratazio-organoen bidez baldintza bereziak ezar ditzaten egiten dituzten kontratuetan, lan-merkatuan genero berdintasuna sustatzeko helburuarekin (33. art.).

Estatuko Administrazio Orokorrek berak eta bere erakunde publikoek egindako kontratuetan, exekuzio-baldintzen artean, nahitaez neurriak jaso beharko dira, lan-merkatuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria sustatzera bideratuak (3/2007 Legeko 34. art.).

Kontratazio publikoan helburu sozialak erdieztearen bidez lortuko da Administrazioak gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna sustatzea. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak entitate pribatuekin sinatzen dituen kontratuetan entitate horiei exijitu beharko litzaieke neurriak hartzea genero berdintasuna sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio klausula partikularren orrietako lan-, gizarte- eta ingurumen-betebeharrei buruzko klausulan ezar dezan, kontratazioaren arloan dituen eskumeneren esparruan, kontratistak gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaren arloko araudi indarduna bete beharra, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

Iruñean, 2014ko ekainaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Alokairuko Etxebizitzen Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetz-unitateei zuzendua.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio Alokairuko Etxebizitzen Parke Publiko bat aktiba eta abian jar dezan, bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetz-unitateei zuzendua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, presako prozeduraz Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroan, gaur egun, familia asko daude bizileku-arazo larriak dituztenak, bai etxegabetze baten biktima izan direlako, bai ordainean emateko prozesu batean sartuta daudelako, bai beren dirusarrerak nabarmen jaitsi direlako; hori dela-eta, ezin dute eskuratu merkatuak eskaintzen duen alokairuko etxebizitzarik.

Alokairu babestuko programan sartuta dauden eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza duten etxebizitza-poltsarako sarbiderik ere ez dute, dela ez dituztelako betetzen gutxieneko dirusarrerei dagokienez programa horrek ezarritako baldintzak, dela beren ahalmen ekonomikotik at gelditzen delako diruz lagundutako alokairuaren gehi erkidego-gastuen, derramen eta abarren batura; hori guztia, kontuan hartu gabe etxebizitza horietarako exijitzen diren abalak eta fidantzak.

Gero eta gehiago dira bizileku-egoera ezegoki eta onartezinak sortzen diren kasuak –esate baterako, familia osoa gela batean bizitzea, kotxe batean lo egitea etxerik ez edukitzeagatik, premiak eraginda etxebizitza bat okupatzea edo bizpahiru familiak etxebizitza bat partekatzea–, langabezia-egoera denboran luzatzen delako, sorospenak agortuta daukatzelako, oinarritzko errenta besterik ez daukatzelako, eta abar. Hori guztia, beren kideen biziraupena arriskuan ez jartzeko.

Gero eta familia edo bizikidetz-unitate gehiago daude alokairua ordaindu ezinik eta alokairu babestuko etxebizitzak sustatzen dituzten enpresek etxegabetzeko mehatxupean.

Pobrezia luzarorako daukagu Nafarroan, eta eta haziz doa pobretutako pertsonen kopurua eta beren kide guztiak langabezia dituzten familia, zeinak jada bazterketa-atalasean bizi diren edo horren mugan dauden.

Urgentziazkoa da Foru Administrazioak gizarte-alokairura eta bizileku-arazo larrietara bideratutako etxebizitza publikoen parke bat abian jartzea, errespetuzko irtenbide bat emateko etxebizitzarako eskubidea bezalako oinarritzko eskubide bati, halako moduan non baremo eta alokairu-prezioek erantzuna emanen dioten modu duin batean bizitzeko ematen ez duten dirusarrerak dituzten pertsona guztiei eskubide hori bermatzeak duen interes sozialari.

Hori dela-eta, ondoko erabakiak hartzea proposatzen diogu Osoko Bilkurari:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio alokairuko etxebizitzaren parke publiko bat aktiba eta abian jar dezan, etxegabetze baten, ordainetan emate baten edo gisako negozio juridiko baten ondorioz bizileku-arazo larriak dituzten familia- edo bizikidetz-unitateei zuzendua, bai eta beren dirusarrerak direla-eta alokairu babestuko etxebizitza eskuratzerik ez dutenei ere. Hartara, Nafarroako Gobernuak premiaz da lehentasuna eman diezaión alokairuko etxebizitzara zuzendutako inbertsio publikoari, eta ez salerosketarako etxebizitza, etxebizitza sozialeko parke publiko hori eratu eta bultzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio etxebizitza sozialeko

parke publiko horren arau-garapena egin dezan, zeinean, besteak beste, honako hauek ezarriko baititu:

a. Ordaindu beharreko hileroko alokairu-kuota ezartzeko baremoa, kuota hori familia-unitatearen edo bizikidetzaren unitatearen dirusarreraren arabera izan dadin. Kuota horrek ez dezan behartu egunean pertsona bakoitzeko 6 euro baino gutxiagorekin bizitzera, alokairua eta etxebizitzaren erabileragatik ustez egin beharreko gastuak kenduta.

b. Ahalmen ekonomikoa justifikatzeko exijitzen den dokumentazioa egungo errentari dagokiona izatea; hartara, eskabidea aurkeztu aurreko hiru hilabeteetako dirusarreraren egiaztagiriak eskatuko dira (nominak, ziurtagiriak, eta abar).

c. Bakarrik hilabeteko alokairu-kuotari dagokion fidantza eskatzea etxebizitza eskuratzeko berme ekonomikoa gisa. Gizarte Zerbitzuek baloratuko dute zer kasutan salbuetsi betebeharrak horretatik.

d. Familia-unitatearen edo bizikidetzaren unitatearen gutxieneko dirusarrera-mugarik ez jarritza alokairu sozialeko etxebizitza horiek eskuratzeko.

e. Gizarte Zerbitzuek baloratutako bizileku-arazo larriko kasuetan izan ezik, etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko dirusarrera ponderatuak –familia-unitatearenak edo bizikidetzaren unitatearenak– ez dira izanen IPREM-ondorio anizkoitzeko errenten adierazle publikoaren halako 1,4 baino handiagoak.

3. Nafarroako Parlamentuak alokairu sozialaren enpresa kudeatzaile batzuen abusuzko jokabidea salatzen du; izan ere, Hiri-errentamenduei buruzko Legean lehentasunez ezarritakoaren aurka, maizterrari ari zaizkio kargatzen hiri-kontribuzioaren gaineko udal zerga.

Iruñean, 2014ko ekainaren 4an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du “Gosariak” ekimena sustatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako beka emateko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen baitu “Gosariak” ekimena sustatu dutenen lana, eta Nafarroako

Gobernua premiatzen baitu hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako beka emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, urgentziatzeko izapidea baliatuz Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko:

Iragan ekainaren 3an, Gizarte Politiketako Batzordearen lan bilera bat egin ahal izan genuen, Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait irakaslerekin eta Gosariak ekimenaren sustatzaileekin.

Lan bileran, programaren helburuak, noraino-koa eta funtzionamendua aurkeztu ziguten, bai eta ekimena abiarazteko arrazoiak ere. Horren oinarrian daude ikastetxe askotan gaur egun bizi diren egiazko egoerak, krisiaren iraupen luzea pairatzen ari diren eta hilaren amaierara ozta-ozta ailegatzeko direnak familietako neska-mutikoek jasaten dituztenak, ahultasun-egoeran.

Hezkuntza arloko profesionalen eguneroko jardunean gero eta beharrian handiagoak detektatzen dizkiete neska-mutiko horiei, hainbestearino non gosaldu gabe eta hamarretakorik gabe joaten baitira eskolara eta gabeziak baitituzte beren oinarriko beharrianetan, elikadura barne.

Gosariak proiektuak, hortaz, hezkuntza arloko profesionalen eta Iruñeko peña batzuetako kideen kezkan du jatorria. Lanari ekin diote, koordinatu egin dira eta elkartasun-proiektu bat bultzatu dute, baliabide bakar batekin: beren borondatea eta lana. Egoera horiek arintzen saiatu dira, nahiz eta jakin badakiten arazoa egiturazkoa dela eta konponbideak ere, hortaz, egiturazkoa izan behar duela, eta administrazioen ardurakoa.

Lan bileran, parlamentu-talde guztiok goraiatu genuen egindako lana, eta bat etorri ginen esatean administrazio publikoen ardurak dela arazo hori, haziz doana, arindu eta bideratzea. Lan bilerara gonbidatutakoek berek zenbait proposamen egin zituzten, gehienak heldu den ikasturtean ezar-tzekoak.

Proposamen horietan dira hurrengo erabaki proposamenean jasotzen direnak:

1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du Gosariak proiektuaren bultzatzaileak

egiten ari diren lana, eta uste du administrazio publikoei dagokiela ikasleen oinarriko beharri-zak asetzeko behar diren baliabideak detektatzea eta taxutzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du ekainean egin dezan eskolako jantokirako beken aurreikuspena, irailean ordain-duko direla bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, udaletan jantokirako beka emateko irizpideak batera daitezen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du familiek ordaindu behar duten gutxienerako kuota jaits dezan, egiaztatuta baitago zenbait neska-mutikok ez dutela jantoki zerbitzurik erabiltzen beren familiek ezin dutelako gutxienerako kuota ordaindu, nahiz eta beka bat eduki.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du behar diren neurriak taxutu di-tzan, jantokirako beka ekaineko eta iraileko esko-laldi trinkoak ere har ditzaten, eta ez soilik eskolaldi zatituko egunak, bai eta ikasturteko aste-azken guztiak ere.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalaren "Fruten Programa" egokitu dezan, halako moduan non 3 egunetik 5 eguneko izatera igaroko baita, ikastur-te osoan egiten baita eta Lehen Hezkuntzara hedatuko baita.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du konponbide eragingarri bat bila dezan udako oporretako hilabeteetan asetze alde-ra, gutxienez ere, Gosariak programan egun parte hartzen duten 146 neska-mutikoen beharrianak, eta ekimenaren bultzatzaileekin lehenbailehen harremanetan jar dadin.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentariak: M^a Carmen Ochoa Cane-la, Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde, Marisa de Simón Caballero eta Patxi Leuza García

F saila:
GALDERAK

Galdera, osasun-garraioaren arloan Nafarroako DYA elkarteak ematen ari zen zenbait zerbitzu bertan behera utzi izanari buruzkoa.*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, osasun-garraioaren arloan Nafarroako DYA elkarteak ematen ari zen zenbait zerbitzu bertan behera utzi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako DYA elkarteak iragarri du bertan behera utziko dituela osasun-garraioaren arloan orain arte ematen zituen zenbait zerbitzu. Gauzak horrela, parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer uste duen ondokoei buruz:

- Zure gobernuak urraketarik egin al du hitzarmena gaurkotzeari dagokionez, edo ordaindu gabe al dauka hitzartutako zenbatekorik, elkarte hori halako erabaki larria hartzera eraman duenik?

- Zure gobernuak nola zuzenduko du erabaki horrek ekar dezakeen kalte larria?

- Egungo osasun-garraioko sistema berraztertzeke asmorik ba al du?

Iruñean, 2014ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorrak Canal de Navarra S.A.rekin hartutako zorra birfinantzatzeko eskariari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorrak Canal de Navarra S.A.rekin hartutako zorra birfinantzatzeko eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Canal de Navarra Sociedad Anónima-CANASA sozietateari kuotak ordaintzeagatik Nafarroako Ubidearen lehen faseko ureztatzaileei sortu zaien egoera eta Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorrak egindako eskaera, sozietate horrekin hartua daukten zorra birfinantzatzeko egindakoa, beren ustiategientzat benetako oztopo izaten hasi baita.

- Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak CANASAn bazkide gisa parte hartzen duela, Nafarroako Gobernuak pentsatuta al dauka ureztatzaileek ordaintzen duten parte finantzatzeko formula aldatzea?

Baiezkoan, zer epe darabil nekazariak ordaindu behar duten zorra birfinantzatzeko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2013ko otsailean, Esako herriko Lasaitasuna eta El Mirador urbanizazioetako etxebizitzarik gehienak, zeinak Esako urtegiko presatik gertu baitaude, hustu zituzten, eraikita dauden mazelan gertatzen ari diren lur-lerradurek eragindako arriskua dela-eta. Etxebizitza horiek hutsik daude oraindik ere.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazidie, ukitutakoek ondare-erantzukizuna dela-eta abiarazitako prozeduren barnean, bere erantzukizuna onartzen duela, hein batean bederen, urtegia handitzeko obren ondorioz etxebizitzek eta urbanizazioek jasandako kalteak direla-eta. Hala ere, erakunde horrek egindako txostenek ez dute argitu ea kaltetutako etxebizitzak bertan bizitzeko osorik edo hein batean leheneratu ahal izanen

diren, ala, lurraren egoera dela medio, kaltetutakoak bertan bizitzen jarri ahal izatea baztertu behar den. Kaltetutakoek dauzkaten zenbait txostenek auzitan jartzen dute etxebizitzek behar diren segurtasun-baldintzak izatea berriro erabili ahal izateko.

Etxebizitza arloko eskumenak –zehazki, bizigarritasun baldintzei buruzkoak– Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuari dagozkionez, kontseilari eskudunak honako honi erantzutea eskatzen dut:

Sustapen Departamentuak zer jarduketa egin ditu, baldin eta jarduketarik egin badu, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzak berriz ere bertan bizitzeko baldintzak betetzen dituzten zehazteko? Sustapen Departamentuak zer ondorio atera ditu, baldin eta ondorioz atera badu, etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak betetzeari dagokionez?

Iruñean, 2014ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

- Unitate horrek zer beharizan ditu Eco-Doppler teknologiaren arloan? Zer eskari egiten dituzte profesionalak? Zer epe aurreikusten da horiei irtenbide bat emateko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Foru Araubideko Batzordeak atzo, ekainak 4, egindako bilkuran, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina andreak onartu zuen Nafarroako Gobernuak itun bat sinatu zuela Sustapen Ministerioarekin, AHTaren obrak finantzatzeko aldera 2010ean sinatutako hitzarmena dela-eta Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez. Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1. Itun hori noiz sinatu den.

2. Zer egunetan egin zen itun hori balioztatu zuen Gobernu Kontseilua. Horren akta igortzea eskatzen dut.

3. 2013an zehar Estatuak Nafarroarekin dituen obligazioak ez betetzeak dituen aurrekontu-inplikazioen balorazio bat.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak nola bermatzen du amiantoaren eraginpean egondako langile erretirodunen nahiz jardunean egonik amiantoaren eraginpean daudenen osasuna zaintzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez? Zertan da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko

lankidetzaren hitzarmena, lanean amiantoa erabiltzetik heldu diren patologiek ukitutako langileei dagokienez baterako jarduketak egiteari buruzkoa?

2.- Azken 10 urteotan, zenbat langileri egin zaio erretiroa hartu osteko osasun-zaintza? Eta lehenago amiantoaren eraginpean egon eta orain jardunean dagoen zenbati?

3.- Ukitutako zenbat pertsonari onartu zaio lanbide-gaixotasun gisa?

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan, eta presakoa denez gero, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren ekainaren 9ko gai zerrendan sartzea eskatu du.

Martxoaren 31n Nafarroako Gobernuak ordainduak zizkion 138.958.637,50 euro Estatuari, Nafarroak Estatuari egindako ekarpen gisa.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Ordainketa horrek zer justifikazio du, eta zer aurreikuspenetan oinarrituta egin da?

Iruñean, 2014ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako

Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa zen, eta 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, hondamendi naturalen eta baliabideak koordinatzearen arloko mugaz gaindiko lankidetzaren zenbait alderdiri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, hondamendi naturalen eta baliabideak koordinatzearen arloko mugaz gaindiko lankidetzaren zenbait alderdiri buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du hondamendi naturalen eta baliabideak koordinatzearen arloko mugaz gaindiko lankidetzaren zenbait alderdiri buruz (8-14/PES-00092). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Bat. Mendebaldeko Pirinioan babes zibila lantzeko izenpetutako akordioaren edukia eta helburuak.

Pirinioan gertatzen diren larrialdiei erantzuna emateko sistemak hobetzea komenigarri dela jota, bereziki Iratiko Oihanean, Nafarroako Gobernuko

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak proiektu baten lanketaren aitzindaritza hartu zuen. Proiektu horren garapenean parte hartzen dute Nafarroako Larrialdietako Agentziak (NLA) eta Pirinio Atlantikoen Departamentuko Su-itxaltze eta Salbamendurako Zerbitzuak (SDIS64), Mendebaldeko Pirinioan babes zibila lantzeari begira. Proiektua, “SAFER PYRENEES” izenaren pean, Europar Batasuneko babes zibilerako eta itsas kutsadurari aurre egiteko proposamenetarako laguntzen 2013ko deialdira aurkeztu zen; urte bereko azaroan, finantzatua izateko hautatu zuten, hurrengo web helbidean ikus daitekeen bezala:

http://ec.europa.eu/echo/funding/cp_projects2013_en.htm

Proiektua finantzatzeko Europar Batasunak exijitzen dituen izapide administratiboen artean ageri da bi bazkideek baterako akordioa sinatzea.

2014ko martxoaren 13an, bazkideen arteko kasuko akordioak sinatu ziren; akordio horietan, izan ere, bakoitzak proiektuan izanen duen inplikazioa zehazten da.

Nafarroako Gobernuaren web atarian, NLaren webgunean, proiektuaren aurkezpena ikus daiteke gaztelaniaz:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presi-

dencia+justicia+e+interior/Organigrama/Estructura+Organica/ANE/

Edo, bestela:

<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/18791ECB-70A0-416B-A9C0-F49EE1266C73/280429/SAFERPYRENNES.pdf>

Aurkezpenean adierazi bezala, proiektuaren helburua da larrialdi eta hondamendiei eman beharreko erantzuna hobetzea, eta honakoak jasotzen ditu:

1. Muga aldeko arrisku, baliabide eta azpiegiturei buruzko ezagutza hobetzea.

2. Erantzuteko eragiketen eraginkortasuna hobetzea.

3. Eragiketak direla eta, bi eskualdeen arteko koordinazioa hobetzea.

4. Herritarren ezagutza eta sentsibilizazioa hobetzea.

Proiektuaren edukia aurkezpen horretan bertan ageri da deskribatuta, eta bost lan nagusi biltzen ditu:

1.- Arriskuen ebaluazioa: Mendebaldeko Pirinioetako arriskuen izaera determinatuko da eta arriskuari buruzko jokaleku batzuk landuko dira, prestaketa-ekintzak garatzeko oinarri gisa. Arrisku, baliabide eta azpiegiturei buruzko mapetako datu base komunak garatuko dira.

2.- Protokoloen idazketa: Jarduteko protokoloak definituko dira, horren barrenean eginkizunak, baliabidea, informazio-prozesuak eta mekanismo operatiboak direla. Baterako eragiketa-protokolo

horiek betetzeko behar den ekipamendua eskuratuko da.

3.- Larrialdiko komunikazioen hobekuntza: Pirinioan sare-estaldura txarrena eta arrisku handiena duten tokietan sare-estaldura areagotuko da, eta Pirinio Atlantikoko eta Nafarroako larrialdi zerbitzuetako larrialdi-sareak elkarrekin konektatuko dira.

4.- Gaikuntza eta sentsibilizazioa: Mugez gaindiko babes zibilaren eta suhiltzaileen erakundeei prestakuntza emanen zaie baterako erantzun-protokoloen arloan, eta jendea sentsibilizatzeko materiala landuko da.

5.- Simulazioa: Larrialdiko egoera batean baterako simulazio bat egingen da, eta ezarritako protokoloak aplikatuko dira.

Bi. Aurrekontuan izanen dituen inplikazioak, ukitutako kontusailak adierazita.

Proiektua 2014-2015 aldian garatuko da. Haren kostu osoaren -584.188 euro- % 72.26 -422.125 euro- Europar Batasunak ordainduko du, eta % 27,74 -162.063 euro-, berriz, hiru bazkideek.

Bazkideek proiekturako egiten duten ekarpena bat dator, bere osotasunean, proiektuaren beteazpenerako ukitutako langileen kostuak hari egoztearekin. Ez da kontusailik sortu behar, ez eta gastu-probisio handiagorik ere behar Nafarroako aurrekontu orokor indardunetan, 2014rako luzatutakoetan.

Nafarroako aurrekontu orokorrekin finantzatu beharreko gastuetarako aurreikuspenaren eta proiektuari lotutako diru-sarrearen zenbatekoa, egozpenerako kontusailaren zehaztapenarekin batera, honako taulan ageri dira:

Organoa	Kontzeptua (Europako proiektuak)	Kontusaila	2014	2015	GUZTIRA
ITZG	Joan-etorri eta bidaia-gastuak	070005 05520 3201 467900	2.965	2.485	5.450
ITZG	Azterlanak eta lan teknikoak	070005 05520 2276 467900	83.767	52.734	136.501
ITZG	Bestelako gastu askotarikoak	070005 05520 2269 467900	2.680	4.020	6.700
ITZG	Ekipamendua	070005 05520 6059 467904	20.583	11.083	31.667
ITZG	Diru-sarrerak	070005 05520 4909 000000	109.995	70.322	180.318
NLA	Lokomozioa eta bidaia-gastuak	054002 02701 2301 131102	4.162	7.562	11.725
NLA	Azterlanak eta lanak	054002 02701 2276 131100	38.750	6.250	45.000
NLA	Bestelako gastu askotarikoak	054002 02701 2269 131102	1.623	3.378	5.000
NLA		054002 02701 6059 131100		12.500	12.500
NLA	Diru-sarrerak	054002 02700 4909 000000	44.535	17.190	61.725
NLA	Europako diru-sarrerak	054002 02700 7909 000000		12.500	12.500


Hiru. Egin beharreko jardueren eta ariketen zerrenda, ukitutako kidegoak adierazita.

1etik 5era bitarteko eginbehar nagusiak aurrez deskribatu dira; betetzeko egutegia, berriz, hau da:

Month	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	
Task 1	█																								
Task 2																									
Task 3	█																								
Task 4																									
Task 5																									

Lau. Aurreikusitako ebaluazio eta jarraipen formulen eta baliabideen xehakapena, Nafarroako Gobernuako zer arduradunek parte hartuko duten adierazita.

Proiektuaren kudeaketarako eginbehar gehigarri bat aurreikusi da, eta jarraipeneko komite bat sortu da:



Europar Batasunari, ezarritako uneetan (proiektuko 8 eta 16. hilabeteetan), berri-emateak igorriko zaizkio, hartan exijitutako formatu eta parametroekin.

Honakoak dira proiektuan parte hartuko duten Nafarroako Gobernuako arduradunak:

- Barne zuzendari nagusia
- Informatika eta Telekomunikazio zuzendaria
- NLako zuzendari nagusia

Maila operatiboan, proiektuaren fase bakoitzean inplikaturako zuzendaritza nagusi guztietako langileek hartzen dute parte.

Europari begira, honakoak dira Nafarroako Gobernuaren ordezkariak: Telekomunikazioen atalburua eta NLako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko zuzendaria.

Bost. Operazio horri estaldura ematen dioten mugaz gaindiko akordioak, Nafarroako Gobernuak sinatuak, eta dokumentazioa.

Europako Batzordearekin sinatutako akordioaren (ECHO/SUB/2013/671435) eta sustatzailearen –Nafarroako Gobernu eta NLA– eta SDIS64ren artean sinatutako elkartzeko-akordioaren kopiak erantsi ditugu, guztiak ere bertsio ofizialean (ingelesez):

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 2014ko maiatzaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, FEDER eta FSE funtsak 2014-2020 aldirian exekutatzeari eta kofinantzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, FEDER eta FSE funtsak 2014-2020 aldirian exekutatzeari eta kofinantzatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du FEDER eta FSE funtsak 2014-2020 aldirian exekutatzeari eta kofinantzatzeari buruz (8-14/PES 00088). Apirilaren 16ko 1238 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen galdera hori. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako FEDER Programa Operatiboen eta Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020 urteetarako programazio-prozesuaren faseak

Hurrenkera kronologikoan, Nazioarteko Proiektio Zerbitzutik egin diren urratsak eta Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020 urteetarako programazio-lana orain arte markatu dituzten egitateak honakoak izan dira Nafarroan:

Behin 2014-2020 urte anitzeko finantza-esparrua eta Europako aurrekonturako sarbidea eta kudeaketa arautuko dituzten Europako erregelamenduak onetsita, erabaki da 2014-2020 urteetarako FSE eta FEDER Programa Operatiboen lanketa eta diseinua egiteko eta haiek aurretik ebaluatzeko laguntza teknikorako bi aholkularitza-entresa kontratatzeko prozedurari hasiera ematea.

2013ko irailaren 26ko bileran, Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eta Ogasunetako eta Administrazio Publikoetako Ministerioak autonomia erkidegoei eta hiri autonomoei jakinarazi zien FEDER+FSE Europako laguntzen 2014-2020 urteetarako erregioen araberrako banaketa, bai eta bi funtsen artean programatu beharreko gutxienekoak ere. Nafarroari 71,3 milioi euro (FEDER+FSE) esleitu zitzaizkion, % 50eko

kofinantzatze-tasarekin; horrek, izan ere, berarekin dakar hasiera batean Foru Erkidegoak 2014-2020 aldian egin beharreko inbertsioa 142,60 milioi eurokoa dela.

Nafarroarentzako esleipena eta funtsen arteko banaketa ezagututa, programazio-lanak hasi dira.

Nazioarteko Proiektiorako Zerbitzuan aholkularitza-enpresekin urriaren hasieran egindako bileran, erabaki zen aurretiko ebaluazio-lanak programazioaren emaitzen paraleloan egiten joanen zirela, halako moduz non lanaren aurrerapena progresiboki baliozkotu ahalko zen eta ebaluatzaileak programazioan lortutako "output" bakoitzean egindako behaketak sartzen ahalko ziren.

Ezarritako mugarrak, programa operatiboaren lanketari buruzko erregelamenduetan ezarritako arauak jarraituta, honakoak izan ziren:

1. Lurralde diagnosi estrategikoa-AMIA.
2. Estrategia integratu baten idazketa.
3. Programaren helburuen definizioa.

4. Ezarpena (POaren kudeaketa eta kontrol sistemak; koordinazio, jarraipen eta ebaluazio prozedurak, eta abar).

5. Programa Operatiboaren proposamenaren aurkezpena, helburu tematikoen arabera xehakaturako finantza-plan bat integratuz, inbertsiorako lehentasunen eta urtekoen arabera.

6. Programa Operatiboaren formalizazioa. Hura, gero, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari Nagusiari aurkeztuko zitzaion.

Hilabete horietan zehar, analisi dokumentaleko lanaren aldi berean, Nazioarteko Proiektio Zerbitzuari atxikitako langileek, aholkularitza enpresekin batera, bilerak izan dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren betearazpen unitateekin, programa operatiboaren diseinuko lehenengo etapak markatzen zituzten lanen prestaketarekiko konpromisoa pizteko eta, aldi berean, 2020 Europako Estrategiarako lagungarri gerta litezkeen jarduketak detektatu ahal izateko, erregelamenduetan eskatzen den bezala.

Helburua zen deskubritzea zein ekintza eraman ari diren aurrera edo zein jar litezkeen abian 2014-2020 aldian etorkizunean ahokadura (estrategikoa zein aurrekontukoa) izan dezaketenak, eta, halaber, teknikarien eskutik ezagutzea zein izan litezkeen programa operatiboa armatzeko balizko "osagaiak".

Bilera horien emaitza gisa, sortutako jarduketaren lehenengo zerrenda bat bidali ziguten Excel orri batean. Haietan, erantzuna ematen zitzaion

diagnosian aurkitutako erronka eta beharrei, eta, aldi berean, beste irizpide batzuk jasotzen ziren; honakoak, esate baterako: aurrekontuan horretarako dirua izatea, kudeaketa errazagoa izatea, gas-tuak aukeratu ahal izatea eta abar.

Lurralde diagnosi estrategikoa-AMIA eta haren aurretiko ebaluazioa 2014ko otsailaren hasieran aurkeztu ziren. Otsailaren amaieran, lurralde-diagnosia eta haren aurretiko ebaluazioa, bai eta "betearazpenaren" laburpen bat ere, igorri zitzaion honako agenteei, prozesuan parte har zezaten eta egokitzat jotzen zituzten behaketak aurkez zituzten:

- Politika Ekonomikoko Zerbitzuaren zuzendaria.
- Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua
- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa
- CCOO eta UGT
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Toki Ekintzako Taldeak (CEDERNA, Nafarroako Erdialdea, Estellerriko Jurramendi, Erriberako EDER).

Otsailean, Europako Batzordearen betearazpen erregelamendua ere argitaratu zen. Haren bidez erregioetan erabili beharko dugun Programa Operatiboaren eredia onetsi zen, arlo tasatuekin eta gehieneko karaktere kopuruarekin. Esteka honen bidez ikus daiteke erregelamendua: <http://www.boe.es/doue/2014/087/L00001-00048.pdf>

Arestian deskribatutako mugarren 2. eta 3. puntuak –programetako helburuen estrategia eta definizioa, aurretiko ebaluazioarekin batera– baliozkotzeko zain gaude urrats berri horri buruzko kontsulta publikoa egiteko.

Estrategiaren irakurketarekin, jada eguneratzen aukeraketa egin behar dugu, bai eta finantza-plana ere, 2014-2020 aldirako urte bakoitzeko banaketarekin, honela xehakaturako: gaiaren arabera helburua, inbertsioaren lehentasuna, berriazko helburua eta, azkenik, jarduketa.

Jarduketaren mapa bat egiten ari gara –programa operatiboetan ahokadura izan lezaketen jarduketak– eta une honetan identifikatzen ari gara haietatik zientetan biltzen diren batera estrategia, aukera, aurrekontua eta Europa 2020 strategiaren adierazleentzako ekarpena, aldi berean diagnostik eta lurralde strategiatik logika batekin eratoritzen direnak.

Halaber, hasi behar dugu ikusten zein adierazlerekin neurtuko den jarduketan betetzea, bai eta haien eragin sozio-ekonomikoa ere, zeren eta Batzordeak ezarritako errendimendu-esparruak bilatzen baitu asmatzeko eta arrakasta izateko bermeak lortzea eta adierazleak izanen baitira lorpen horiek neurtzeko tresna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko maiatzaren 21ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, etxebizitza babestua erregelamenduz ezarritako salbuespenen bidez eskuratu duten onuradunei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, etxebizitza babestua erregelamenduz ezarritako salbuespenen bidez eskuratu duten onuradunei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin

du etxebizitza babestuetarako sarrerari buruz, Nafarroako Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko 20/2010 Foru Legeko 19. artikuluan jasotako salbuespenei jarraituz, eta 62/2013 Foru Dekretuko seigarren xedapen iragankorraren babesean bisatuak izateko aurkeztu diren etxebizitzaren kopurari buruz (PES-00091). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuaren zortzigarren legegintzaldia 2011ko ekainaren 15ean hasi zen. Egun horretatik, 20/2010 Foru Legeko 19. artikuluan xedatutakoaren arabera erregelamendu bidez ezarritako salbuespen bakarra izan da irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuko seigarren xedapen iragankorra. Aipatutako xedapen iragankor horren babesean honako etxebizitzak esleitu dira:

	GUZTIRA	6. xedapen iragankorra
BOEak	178	43
PTEak	110	70
BPEak	20	14
GUZTIRA	308	127

Galderaren bigarren atalari dagokionez, seigarren xedapen iragankorrak indarra hartu zuenetik (2013ko irailaren 25a) gaur arte, guztira 308 etxebizitza bisatu dira; horietatik, 127 –hau da, % 41,23– aipatutako xedapen iragankorraren bidez bisatu dira.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitaziora atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitaziora atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlana" lanari buruz (PES-00094). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

• Honakoak dira Belateko eta Almandozko tuneletako iparraldeko eta hegoaldeko muturren kilometro-puntuak:

– Belateko tuneleko hegoaldeko muturraren kilometro-puntua: 28+010

– Almandozko tuneleko iparraldeko muturraren kilometro-puntua: 30+980

– Almandozko tuneleko hegoaldeko muturraren kilometro-puntua: 33+000

– Almandozko tuneleko iparraldeko muturraren kilometro-puntua: 34+180

• Honakoak dira N-121-A errepidearen tarte horrek hartzen dituen kilometro-puntuak: 27+500 kilometro-puntutik 34+500 kilometro-puntura.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, «after-care» direlako bisitei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, «after-care» direlako bisitei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin bat du, 2014ko apirilaren 29ko 1309 sarrera-zenbakia duena, *after-care* bisitei buruz (8-14/PES-00096). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Egindako bisiten zerrenda osoa:

2013an 42 enpresa bisitatu dira, 40 atzerriko kapitala dutenak eta 2 kapital nazionala dutenak. Azken bi horiek Fagor Ederlan eta Gestamp izan dira. Atzerriko kapitala dutenak, berriz, honakoak dira:

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	HORTÍCOLA DEL EBRO	2013/05/13
2	LACTEOS GOSHUA	2013/05/30
3	LIMAGRAIN	2013/05/09
4	IBEREMBAL	2013/06/12

AUTOMOZIOAREN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	NUCAP EUROPE	2013/05/15
2	GESTAMP NAVARRA	2013/05/15
3	TI AUTOMOTIVIE	2013/05/29
4	ASIENTOS ESTEBAN	2013/05/16
5	FAURECIA	2013/05/16
6	DELPHI PACKARD ESPAÑA	2013/05/22
7	ZERTAN S.A.	2013/05/31
8	SKF ESPAÑOLA	2013/05/10
9	DEFONTAINE IBÉRICA	2013/06/05
10	GORVI	2013/06/10
11	DANA*	2013/06/04
12	KPF*	2013/11/12
13	FAGOR EDERLAN	2013/11/19
14	FAURECIA EXTERIORS*	2013/12/17

ERAIKUNTZAREN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	SCHNEIDER ELECTRIC	2013/05/23
2	ROCKWOOL PENINSULAR, S.A.U.	2013/05/20
3	SAINT GOBAIN ABRASIVOS	2013/06/11
4	GUARDIAN NAVARRA, S.A.	2013/06/21
5	BASF	2013/11/05

Bisita horietan ateratako ondorioak:

Enpresek positibotzat jotzen dute horrelako bisitak egitea eta Nafarroako Gobernuaren eta Sodenaren arintasuna eta profesionaltasuna baloratzen dute.

Ondorio gisa atera dezakegu ezen, oro har, bisitatutako enpresak egoera onean daudela; alabaina, esan beharra dago tamaina handiko enpresak direla, beren salmenten ehuneko handi bat esportazioaren bidez egiten dutenak. Bisitatu ditugun enpresetatik askok doikuntza handiak egin zituzten krisialdiaren lehenengo urteetan; horrenbestez, haien egungo gaitasuna merkatuaren araberakoa da. Egiatzatu ahal izan dugu haien finantzaketa, oro har, taldetik datorrela, dela zuzenean, dela abalen bitartez.

Zehazki, 42 konpainia bisitatu ondoren, enplegua galtzeko arrisku handia batean baizik ez dugu aurkitu. Horietatik 11 "hala-nolakoen" artean sailkatu dira, zeren eta etorkizunari buruzko nolabaiteko zalantza baitago. Gainerakoak, 30 hain zuzen,

LOGISTIKAREN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	FM LOGISTIC	2013/06/06
2	KWD ESPAÑA S.A.U.	2013/06/06

PAPERAREN, BILDUKIEN ETA ABARREKOEN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	SCA SPAIN	2013/05/21
2	MELTON	2013/06/11
3	EKA CHEMICALS IBÉRICA, S.A.	2013/06/25
4	SARRIÓPAPEL	2013/06/27
5	PAPERTECH	2013/06/21
6	SMURFIT KAPPA	2013/05/08
7	HEXACOMB	2013/10/16
8	KNAUF MIRET	2013/11/22

KIMIKAREN SEKTOREA:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	CYGSA - COMPUESTOS Y GRANZAS, S.A.	2013/06/12
2	SCHMIDT-CLEMENS SPAIN SAU	2013/06/25
3	PROPISA	2013/06/17
4	SUPERFOS PACKAGING	2013/06/18
5	DOW CHEMICAL IBÉRICA, S.A.	2013/06/19
6	HUTSMAN ADVANCED MATERIALS	2013/11/26

BESTERIK:

ZK.	ENPRESA	BISITAREN DATA
1	ZIRABA	2013/06/03
2	NISSAN FORKLIFT ESPAÑA	2013/05/28
3	KOXKA	2013/09/18

ongi doaz, eta ez dirudi epe ertainean arazorik izanen dutenik.

Hala eta guztiz ere, jotzen dugu ondorio hori ezin zaiela aplikatu Nafarroako gainerako enpresei, zeren eta gehien-gehienak enpresa txiki eta ertainak baitira, finantzaketarako eta kanpoko merkatutarako sarbidean arazo handiak dituztenak.

Honakoak azpimarratu behar ditugu enpresek arazo-iturri jotzen dituzten alderdien artean:

- Lan alderdiak (lanpostuen kostu handia, lanerako malgutasun txikia, lan-gatazken kopuru handia, ahaleginaren eta konpromisoaren kultura txikia, berariazko prestakuntza duten pertsonak aurkitzeko zailtasuna, ingeles maila eskasa).

- Alderdi administratiboak eta araudiaren arlokoak, bereziki administrazio mailen arteko deskoordinazio alderdiak.

- Azpiegituren eta zerbitzuen arloko alderdiak
- Laguntzekin lotutako alderdiak

- Unibertsitateekin eta teknologia zentroekin koordinatzearekin lotutako alderdiak

Zehazki, 42 konpainia bisitatu ondoren, enplegua galtzeko arrisku handia batean baizik ez dugu aurkitu. Horietatik 11 "hala-nolako" artean sailkatu dira, zeren eta etorkizunari buruzko nolabaiteko zalantza baitago. Gainerakoak, 30 hain zuzen, ongi doaz, eta ez dirudi epe ertainean arazorik izanen dutenik.

Hala eta guztiz ere, jotzen dugu ondorio hori ezin zaiela aplikatu Nafarroako gainerako enpresei, zeren eta gehien-gehienak enpresa txiki eta ertainak baitira, finantzaketarako eta kanpoko merkaturako sarbidean arazo handiak dituztenak.

Honakoak azpimarratu behar ditugu enpresek arazo-iturri jotzen dituzten alderdien artean:

- Lan alderdiak (lanpostuen kostu handia, lanerako malgutasun txikia, lan-gatazken kopuru han-

dia, ahaleginaren eta konpromisoaren kultura txikia, berariazko prestakuntza duten pertsonak aurkitzeko zailtasuna, ingeles maila eskasa).

- Alderdi administratiboak eta araudiaren arlokoak, bereziki administrazio mailen arteko deskoordinazio alderdiak.

- Azpiegituren eta zerbitzuen arloko alderdiak

- Laguntzekin lotutako alderdiak

- Unibertsitateekin eta teknologia zentroekin koordinatzearekin lotutako alderdiak

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 27an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorreari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorreari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du industriaren trakzio-ahalmenaren gaineko azterlanari buruz (8-14/PES-00102). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1315 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Parlamentariak azterlan horren ondorio orokorreari buruz, modu zabal eta sakonagoan azaldu-

ta, egindako galderari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

Pwc-k, Siemensen babesarekin, joan den urtean egindako "Espainiako industriaren lehiakortasunaren gakoak" txostena argitaratu eta zabaltzera ematearen kariatara, oso interesgarritzat jo zen txosten horren emaitzei Nafarroako industriarako datu alderagarriak gehitzea (energia adarrak kenduta), sektore horrek erregio-ekonomian duen garrantzia dela eta.

Joan den urtearen amaieran Ekonomia Zerbitzuak egindako "Industriaren lehiakortasuna; Nafarroaren eta Espainia osoaren arteko alderaketa" izeneko azterlana guztiz oinarrituta dago Pwc-ren aipatutako txostenean, eta aurkeztutako datuei eta haiek manufaktura-adarren kopuru handi batean bereizteari esker lortutako homogeneizatzea dela eta, tresna ezin hobea da Nafarroako industriaren bilakaera eta lehiakortasuna aztertzeko.

Lanak hiru zati bereizi dauzka. Lehenean, alderaketa-taula batzuen bitartez, Industriak ekonomiarako egiten duen ekarpena neurtzen da, produkzioaren makro-magnitudeen, balio gordin erantsiaren, enpleguaren eta esportazioen bitartez, ikuspegi nazional eta erregional batetik. Gai-

nera, Ekonomia Zerbitzuak industria-adarren BEGaren multiplikatzaileri eta enpleguari buruz egindako kalkulua ere jasotzen du, Pwc-k alderagarritasuna bermatzeko erabilitako metodologiari jarraituz.

Lanaren bigarren atalean, industriaren lehiakortasunari buruzko azterketan sakontzen da, hant eragin handiena duten elementuen bitartez: langile bakoitzaren soldata-kostua, produktibotasuna, kostu energetikoa, I+G inbertsioa eta enpresaren batez besteko tamaina. Determinante horietarako guztietarako, datuen eskuragarritasunak horretarako bidea ematen badu, 2000tik 2011ra bitarteko bilakaera ematen da, bai eta Espainiari-ko eta EB-15ekiko alderaketa berriena ere.

Azterlanaren gainerakoan, nabarmentzekoa da industriaren produktibotasunak eta I+G-k gora egiteak Nafarroako ekonomiaren hazkundean izan lezaketen eraginari buruzko estimazioa. Horretarako, Pwc-k aplikatutako ereduko erregresio parametroen berdinak erabili dira.

Txosten horretan ateratzen diren ondorioen artetik, honakoak nabarmendu behar dira:

1) Industriak funtsezko garrantzia dauka Nafarroako ekonomian. BEG terminoetan, manu- fakturen industriak % 25,9 egin zuen 2011n, Espainian eta EB-15ean egiten duen ekarpena baino ehuneko hamar gehiago. Gainera, haren eragin biderkatzailerak kontuan izanda, erregio-industriarekin zuzenean nahiz zeharka lotuta dagoen BEGaren ehunekoa % 42raino iristen da.

2) Nafarroako manufakturek ekonomia osoan duten trakzio-eraginari erreparatuz gero, ikusiko dugu lidergo tokian dagoela, eraikuntzaren, zerbitzuen eta lehen sektoreko jarduketan aldean.

3) Produksioari dagokionez, Nafarroako esportazio industrialak naziokoen parean daude, baina inportazioak kentzen badira, Nafarroan superabit nabarmena ageri da.

4) Nazioko guztizkoarekin alderatuta, Nafarroako industria bereziki lehiakorra da motordun ibilgailuen, material eta ekipamendu elektriko, elektroniko eta optikoen eta makineria eta ekipamendu mekanikoaren arloetan. Metalurgiarene eta metalezko produktuen jarduerarako aztertutako adierazleak, batez beste, ahuldade handiena dutenak dira.

2. Halaber, parlamentari honek azterlan osoa igor dakion eskatzen du.

Pdf bat erantsi da azterlan horrekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu-ko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentari-ek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuko Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena, negoziatzeko prozesuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, zama orokorretarako ekarpen gisa Estatuko Administrazioari ordaindu beharreko zenbatekoa –Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan agertzen dena– negoziatzeko prozesuari buruzkoa, Foru Diputazioari emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak 2013ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren 2014rako ekitaldirako luzatutako 2012ko aurrekontu orokorrak betetzeko arauetako bederatzigarren puntuari buruz (8-14/PES-78). Hona Nafarroako Gobernuaren erantzuna:

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak desadostasun bat dauka Espainiako Gobernuarekin 2013rako defizit helburua betetzeari dagokionez.

Hori dela eta, Ministerioari eskatu zitzaion BEZaren bidezko doikuntzaren erregularizatzea –2012an enpresa garrantzitsu batek merkaturatze-moduan egindako aldaketa garrantzitsu baten ondoriozkoa– ez sartzeko Nafarroako Foru Komunitatearen finantzaketa-beharrak finkatzerakoan. Eskari horri, momentuz, ez zaio baiezko erantzunik eman, eta ez gaude horrekin batere ados.

Horrela adierazi diogu Ministerioari behin baino gehiagotan, eta, halaber, eskatu diogu Nafarroan aplikatu dezala araubide komuneko beste autonomia erkidego batzuei 2009ko konturakoak izan eta 2011n eragina izanzen zuten aurrerakinen erregularizatzea dela-eta eman zitzaizen tratamendu bera.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere ez gara behin betiko akordio batera iritsi Ministerioarekin, baina prozesuak zabalik jarraitzen du, datuen behin betiko itxiera egiten ez den arte, joan den apirilean Ministeriotik igorri ziguten gutunean ziurtatzen den bezala; izan ere, gutun horretan zehazten da ezen “emaitza hori behin-behinekotzat hartu beharko litzatekeela eta aldatu ere alda litekeela, bai une honetan bidean den berrikuspen eta kontraste prozesuaren ondorioz, bai administrazio publikoen sektorean aplikatutako SEC 2010 delakoaren irizpide berrien ondorioz”.

Hori dela eta, prozesu hori ixten buru belarri ari gara lanean, ekarpenari buruzko negoziatzea hasi baino lehen. Horri dagokionez, informatu behar dizut aurreikuspen makroekonomiko berriak hartu beharko ditugula kontuan; horien barrenean sartzen da, batetik, Nafarroako ekonomiaren 2014rako hazkundearen kalkulua, % 1,1ekoa, eta, bestetik, Foru Ogasunaren diru-sarrereri buruzko kalkulu hobeak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 27an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

